# PARA ACABAR CON LA POBREZA VOLUNTAD POLITICA MURRIZKETARIK EZ

---

**17 de octubre de 2021**
**Día internacional para la erradicación de la pobreza**

La conmemoración del Día Internacional para la Erradicación de la Pobreza se remonta al 17 de octubre de 1987. Ese día, más de cien mil personas se congregaron en la plaza del Trocadero, en París, donde en 1948 se había firmado la Declaración Universal de Derechos Humanos, para rendir homenaje a las víctimas de la pobreza extrema, la violencia y el hambre.

Las personas allí reunidas proclamaron que **la pobreza es una violación de los derechos humanos y afirmaron la necesidad de aunar esfuerzos para garantizar su respeto**. Estos principios están inscritos en una losa conmemorativa que se descubrió aquel día y de la que se han hecho replicas en otras partes del mundo. Desde entonces, personas de toda condición, creencia y origen social se reúnen cada año ante estas placas para renovar su compromiso y mostrar su solidaridad con las personas pobres.

La plena participación de las personas empobrecidas, especialmente en las decisiones que afectan a sus vidas y a sus comunidades, debe ocupar un lugar central en las políticas y en las estrategias para un futuro sostenible, para garantizar que nuestro planeta y nuestras sociedades, presentes y futuras, respondan a las necesidades y a las aspiraciones de todas las personas, y no solamente a las de algunos y algunas privilegiadas.

Más aún en el actual contexto de reforma de la actual RGI, y de aplicación de nuevos recortes a esta prestación, que se ha manifestado, en sus 32 años de historia, como **incapaz de**:

- **Acoger a todas las personas en riesgo de pobreza y exclusión**, ya que cada año, aproximadamente, un tercio de la población en riesgo no accede al sistema: 54.197 personas en 2020, 60.618 en el 2018, 59.497 en el 2016.
- **Superar la pobreza**: Aproximadamente un tercio de la población en riesgo que accede al sistema no sale de la pobreza: 67.306 personas en 2020, 70.348 en 2018 y 63.069 en 2016.

Según la ONU más de 700 millones de personas, el 10 % de la población mundial, aún vive en situación de extrema pobreza, con dificultades para satisfacer las necesidades más básicas, como la salud, la educación y el acceso a agua y saneamiento. Personas que viven con menos de 1,9 dólares al día.

Una nueva investigación, publicada por el Instituto Mundial de Investigaciones de Economía del Desarrollo de la Universidad de las Naciones Unidas, advierte de que las consecuencias económicas de la pandemia mundial podrían incrementar la pobreza en todo el mundo hasta llegar a afectar a 500 millones de personas más, o lo que es lo mismo, a un 7% más de la población total mundial. Esta sería la primera vez que la pobreza aumente en todo el mundo en 30 años, desde 1990.

En Euskadi los últimos datos de Pobreza y Exclusión del propio Gobierno Vasco reflejan unos alarmantes datos de pobreza y exclusión en nuestros pueblos y barrios:

- Una de cada 5 personas, el 19,9% de la población está en riesgo de pobreza y exclusión social (Indicador AROPE).
- El 17,8% de la población está en pobreza relativa, 385.560 personas que viven con menos de 1.020,00 euros al mes.
- El 6,1% vive en pobreza grave. 132.173 personas que viven con menos de 680 euros al mes.

- 2.797 personas no tienen hogar.
- El 29,75%% de las personas en riesgo de pobreza real no acceden al sistema de RGI. 54.127 personas
- El 36,95% no sale de la pobreza
- La pobreza afecta más a las mujeres que a los hombres
- La desigualdad sigue creciendo en Euskadi.

Erradicar la pobreza exige recursos y voluntad política; exige cambiar de modelo socio-económico; poner la vida en el centro, la vida de las personas y la vida del planeta.

**Por ello hoy, día internacional de lucha contra la pobreza, para erradicar la pobreza en Euskadi pedimos a los responsables políticos de Euskadi:**

- **Un sistema de garantía de ingresos que garantice acabar con todas las formas de pobreza**
- **Vivienda digna y accesible para todas las personas**
- **Condiciones laborales dignas que permitan acabar con la precariedad laboral**
- **Pensiones justas y dignas**
- **Una fiscalidad más justa y progresiva**
- **Fomento de la economía social y solidaria**
- **Acceso a servicios públicos de calidad**

COLECTIVOS FIRMANTES.

**COLECTIVOS SOCIALES:**
Argilan-ESK, Argitan (Centro Asesor de la Mujer de Barakaldo), Asociación de Trabajadoras de Hogar de Bizkaia, Berri-Otxoak (Barakaldo), Danok Lan (Galdakao), La Posada de los Abrazos-Besarkatuz, Mujeres del Mundo, Oficina de Derechos Sociales de Portugalete, Oficina de Derechos Sociales de Santurtzi, Kaleratzerik EZ-PAH Bizkaia, SOS Racismo Bizkaia y Trabajadoras No Domesticadas.

**SINDICATOS:**
CCOO, UGT, LSB-USO, STEILAS, ESK y CGT-LKN.

**REDES DEL TERCER SECTOR SOCIAL:**
EAPN EUSKADI (Red europea de lucha contra la pobreza y la exclusión social)
REAS EUSKADI (Red de economía alternativa y solidaria de Euskadi)
GIZATEA (Asociación de Empresas de Inserción de Euskadi)
HIREKIN (Federación de entidades de Iniciativa e Intervención Social de Euskadi)
GIZARDATZ (Asociación de Entidades de Iniciativa e Intervención social de Bizkaia)
AISA (Asociación de entidades de Iniciativa e Intervención Social de Araba)
HEDATZEN (Asociación de entidades de Iniciativa e Intervención Social de Gipuzkoa)
SARGI (Asociación de entidades sociales de Gipuzkoa)

**FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES VECINALES DE BILBAO.**

**Con la colaboración del MOVIMIENTO DE PENSIONISTAS DE BIZKAIA.**

# POBREZIA DEUSEZTATZEKO: BORONDATE POLITIKOA MURRIZKETARIK EZ

---

**2021eko urriak 17**
**Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna**

Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Egunak 1987ko urriaren 17an du jatorria. Parisko Trocadéro plazan, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala sinatu zen toki berean, ehun mila pertsona baino gehiago bildu ziren egun hartan, muturreko pobrezia, indarkeria eta gosea jasaten zituzten pertsonak omentzeko.

Bertan zeudenek **pobrezia giza eskubideen urraketa dela** aldarrikatu zuten, **eta giza eskubideak betetzen direla bermatzeko, indarrak batu behar ditugula**. Printzipio horiek egun hartan aurkeztutako oroitzapenezko lauza batean zizelkatuta daude. Gerora, lauza horren kopiak egin dira mundu osoan zehar, eta, harrezkero, baldintza, sinesmen eta jatorri sozial desberdinetako pertsonak biltzen dira urtero, plaka horien aurrean, pobrezian bizi direnen aldeko konpromisoa eta elkartasuna berresteko.

Pertsona pobretuek garapen jasangarriarekin lotutako politika eta estrategietan parte hartu behar dute, batik bat haien bizitzari eta komunitateei eragiten dieten gaietan, eta ezinbesteko da hori, bermatu nahi badugu gure planetak eta egungo eta etorkizuneko gizarteek pertsona guzti-guztien beharrei eta itxaropenei erantzuten dietela, eta ez pribilegiatu gutxi batzuen beharrei eta itxaropenei soilik.

Hori are garrantzitsuagoa da orain, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren erreformarekin eta ezarriko zaizkion murrizketekin. Martxan egon den 32 urteetan, prestazioa **ez da gai izan**:

- **Pobrezia eta bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsona guztiak barne hartzeko**. Izan ere, urtero, pobrezia-arriskuan dauden biztanleen herena gutxi gorabehera sistematik kanpo geratzen da: 54.197 biztanle 2020an, 60.618 biztanle 2018an eta 59.497 biztanle 2016an.
- **Pobrezia gainditzeko**: Arrisku-egoeran dauden pertsonen heren batek gutxi gorabehera ezin du pobreziatik irten, nahiz eta sistema barruan egon: 67.306 pertsona 2020an, 70.348 pertsona 2018an eta 63.069 pertsona 2016an.

Nazio Batuen Erakundearen arabera, 700 milioi pertsona baino gehiago (hau da, munduko biztanleen % 10) muturreko pobrezian bizi da, eta zailtasunak ditu oinarrizko premiak asetzeko, hala nola osasuna, hezkuntza eta ura eta saneamendua lortzea. Pertsona horiek egunean 1,9 dolar baino gutxiago dituzte bizitzeko.

Nazio Batuen Unibertsitateko Garapen Ekonomiaren Ikerketarako Munduko Institutuak duela gutxi argitaratu duen ikerketa batek ohartarazi du mundu osoko pobrezia areagotu daitekeela, pandemiak ekarritako ondorio ekonomikoen eraginez, eta 500 milioi pertsona gehiago egon litezkeela pobrezia-arriskuan (hau da, munduko biztanleen % 7 baino gehiago). Azken 30 urteotan munduko pobrezia-tasa handitzen den lehen aldia izango litzateke, ez baita 1990az geroztik hazi.

Euskadin ere, gure herri eta auzoetako pobrezia-eta bazterkeria-tasak kezkagarriak dira. Hala islatzen dute Eusko Jaurlaritzaren azken datuek:

- Bost pertsona bakoitzeko, batek pobrezia- eta gizarte-bazterkeria jasaten ditu, eta biztanleen % 19,9 da hori (AROPE adierazlea).
- Biztanleen % 17,8ak pobrezia erlatiboa jasaten du, eta 385.560 pertsonak 1.020,00 euro baino gutxiago ditu hilean bizitzeko.

- % 6,1ak pobrezia larria jasaten du. 132.173 pertsonak 680 euro baino gutxiago ditu hilean bizitzeko.
- 2.797 pertsona etxegabeak dira.
- Pobrezia-arrisku errealean dauden biztanleen % 29,75ak ez dauka Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun izateko aukerarik, eta 54.127 pertsona daude egoera horretan.
- Biztanleen % 36,95ak ezin du pobrezia-egoeratik atera.
- Pobrezia-tasak handiagoak dira emakumeetan gizonetan baino.
- Herritarren arteko desparekotasuna gero eta handiagoa da Euskadin.

Baliabideak eta borondate politikoa ezinbestekoak dira pobrezia desagerrarazteko; baina, horrez gain, eredu sozioekonomikoa aldatu behar da, eta bizitzari eman behar zaio lehentasuna, bai pertsonena, bai planetarena.

**Horregatik, gaur, pobreziaren aurkako nazioarteko egunean, Euskadiko arduradun politikoei Euskadin pobrezia desagerrarazteko neurriak har ditzaten eskatu nahi diegu:**

- **Pobrezia-mota guztiak ezabatuko dituen Diru Sarrerak Bermatzeko Sistema ezartzea**
- **Pertsona guztiek etxebizitza duina lortzeko aukera izatea**
- **Lan-baldintza duinak, lan-prekarietatea deuseztatu ahal izateko**
- **Pentsio justuak eta duinak**
- **Zerga-sistema bidezkoagoa eta progresiboagoa**
- **Ekonomia soziala eta solidarioa sustatzea**
- **Kalitatezko zerbitzu publikoak eskuratzeko aukera izatea**

DEITZEN DUTENAK.

**GIZARTE KOLEKTIBOAK:**
Argilan-ESK, Argitan (Barakaldoko Emakumeentzako Aholku Etxea), Bizkaiako Etxeko Langileen Elkartea, Bizkaiko SOS Arrazakeria, Berri-Otxoak (Barakaldo), Danok Lan (Galdakao), La Posada de los Abrazos-Besarkatuz, Munduko Emakumeak, Portugaleteko Eskubide Sozialen Bulegoa, Kaleratzerik EZ-PAH Bizkaia, Santurtziko Eskubide Sozialen Bulegoa, Etxekotu Gabeko Emakume Langileak.

**SINDIKATUAK:**
CCOO, UGT, LSB-USO, STEILAS, ESK eta CGT-LKN.

**HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO SAREAK:**
EAPN EUSKADI (Pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako Sarea)
REAS EUSKADI (Ekonomia alternatibo eta solidarioaren Euskadiko sarea)
GIZATEA (Gizarteretzako eta lanaratzeko Euskadiko empresen elkartea)
HIREKIN (Euskadiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko entitateen Federazioa)
GIZARDATZ (Bizkaiko gizarte ekimeneko eta esku hartzeko entitaeen Elkartea)
AISA (Arabako Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarteak)
HEDATZEN (Gipuzkoako Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarteak)
SARGI (Gipuzkoako gizarte erakundeen Elkartea)

**BILBOKO AUZO ELKARTEEN FEDERAZIOA**

**BIZKAIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAREN PARTE-HARTZEAREKIN**